

HITZ BITAN

PUERTO RICO

Estatu Batuetako Armadak azken tiro ariketak egin ditu Viequeseko base militarrean

Erredakzioa | DONOSTIA

Larunbatean egin zituen azken tiro ariketak AEBetako Armadak Puerto Ricoko Vieques uhartean. Uhartetik gertu zegoen gerraontziak azken aldiz tirokatu zituen trebakuntzarako inguruan jarritako txalupak, igandean Kim Dixon Armadako bozeramaileak azaldu zuenez. Bere esanetan, gerraontziek itsasoan jarraituko dute lanean aurrerantz. «Entrenamenduak lasaia izan dira, gure gizonak ondo egiten dute lan, eta, beraz, herritarrek ez dute kexatzeko arrazoirik», esan zuen Dixonek.

Igandean 100 ibilgailu militar inguru igaro ziren Viequeseko herrietatik. Leku batzuetan beraien aldeko hitzak eta pankartak ikusi ahal izan ziren arren, beste batzuetan irainak eta aurkako oihuak entzun zituzten soldaduek. Istilurik izan ez zen arren, militarrek igaro behar zuten lekuetan 80 polizia inguru ezarri zituzten ezer gerta ez zedin.

Nilda Medina Estatu Batuetako Armadaren aurkako manifestazioak zuzentzen aritu zenen herritarretako baten arabera, soldaduek ez zuten uhartea euren borondatez utzi, herritarrek bidali zituztelako baizik.

Kalte eta protesta ugari

Iturri ofizialen esanetan, Armadak maiatzaren lehen egunean uhartea uzteko asmoa zuen. Baina manifestariek soldaduen aurkako protestetan jarraitu zuten. Euren arabera, 1947an hasi ziren entrenamenduek kalte larriak eragin dituzte ingurumenean, eta baita bertan bizi diren 9.100 herritarren osasunean ere. Baina, AEBetako Armadak ukatu egin ditu salaketak.

1999an polizia bat hil zenetik, Puerto Ricoko Gobernuak gogor kritikatu du Armada. Geroztik gezurrezko armamentua erabili izan dute soldaduek.

Azken lau urteotan, mila herritar inguru atxilotu dituzte Estatu Batuetako soldaduek erabiltzen dituzten lurretan sartzeagatik. Horietatik 19 azken 27 egunetan atxilotu zituzten, Dixonen esanetan.

BOLI KOSTA

Matxinoek astebeteko epea eman dute Marcoussisko bake akordioa indarrean jartzeko

Agentziak | JAMUSUKRO

CEDEAO Afrika Mendebaldeko Estatuen Ekonomia Elkar-tea, Boli Kostako Gobernu eta oposizio taldeak Jamusukro hiriburuan bildu ziren atzo, urtarrilaren 24an Paris ondoan matxinoekin sinatutako Marcoussisko bake akordioa ezartzeko modua eztabaidatzeko. MPCİ Boli Kostako Mugimendu Abertzalea talde matxinoak, berriz, ez zuen parte hartu.

Guillaume Soro MPCİko buruak atzo ohartarazi zuen ez daudela hitzarmena berriro negoziatzeko prest, eta astebeteko epea eman zuen horretarako. Bestela, bera buru duen taldea Abidjan hartzera joango dela gaineratu zuen. «Aste bat

igarotzen bada eta Gbagbok (Boli Kostako presidentea) erreakzionatzen ez badu, gu ez gara lotuta egongo eta Abidjanera abiatzeko erantzukizuna hartuko dugu», adierazi zuen Sorok.

Herenegun berriz ere borrokak gertatu ziren matxinoen eta Boli Kostako Armadaren artean. Bi aldeek elkarri leporatu zioten borrokak eragin izana.

Baikor

CEDEAOko presidente John Kufuor ghanatarra, Seydou Diarra bake akordioari jarraiki lehen ministro izango dena, eta NBEko idazkari nagusi Kofi Annanen ordezkari Ahmedou Ould-Abdalak hartu zuten parte, besteak beste, atzoko elka-



ISSOUF SANOGO / EPA

Gbagbo Togoko presidentea Gnassingbe Eyadema agurtzen, atzo.

rizketan. Lehen ministroa izendatu eta hari koalizioa osa dezan sostengua adieraztea zen bileraren helburua.

Mohammed ibn Chambas CEDEAOko idazkari exekutiboak baikortasuna adierazi zuen, nahiz matxinoek bileran parte ez hartu. Haiekin hitz egin jarraituko zutela nabarmendu zuen.

Laurent Gbagbo Boli Kostako presidentea, hamar egunez isilik egon ondoren, ostiralean

adierazi zuen Marcoussisko akordioa babesten zuela, baina herrialdeko Konstituzioa urratzen ez zuen heinean.

Gbagboren jarraitzaileek manifestazio jendetsuak egin dituzte bake akordioa sinatu zenetik, presidentea boterea galduko duen beldur baitira.

Iazko irailaren 19an MPCİ altxa zenetik, ehunka hildako izan dira matxinoen eta Armadaren arteko borroketan, baita milaka desplazatu ere.



JEWEL SAMAD / EPA

Nazioarteko segurtasun indarretako kideak Alemaniako Armadak Kabul duen kuartelaren inguruan.

AFGANISTAN

Gutxienez bi misil lehertu dira Alemaniako Armadak Kabul duen kuartelatik gertu

Gutxienez bi misil lehertu ziren atzo Alemaniako Armadak Afganistango Kabul hiriburuan duen kuartelatik kilometro ingurura, Peter Struck Defentsa ministroa han zegoenean, baina ez zen zauriturik izan. Arratsaldean izan zen eztanda eta haren ondorioz bunker batean babestu ziren bertan zeuden soldaduak. Azken hilabeteetan beste hainbat eraso ere izan dira inguru hartan. Bestalde, Hamid Karzai Afganistango presidentea gutxienez 138 preso askatzeko agindua eman zuen atzo, Aid El Adha ospakizun musulman egunean.

TXINA

Bizi osorako kartzela zigorra ezarri diote disidente bati

1982az geroztik AEBetan bizi zen Wang Binzhang Txinan demokrazia ezartzeko borrokan aritzeagatik egin zen ezagun, eta orain, herrialde hartako epaitegi batek bizi osorako kartzela zigorra ezarri dio. Shenzhengo auzitegiak, Hong Kongtik gertu, Taiwanera ezkuto informazioa bidali izana, Txinako Alderdi Komunistaren aurkako artikulua idatzi izana eta talde terrorista bateko buruzagi izatea leporatzen dio Bingzhang.

IRAN

Energia nuklearra elektrizitatea ekoizteko erabiliko duela esan du Teheranek

Mohamed Khatami Irango presidentea igandean iragarri zuen Jazd hiritik gertu uranio bila hasiko direla eta atzo adierazi zuenez, elektrizitatea egiteko bakarrik erabiliko dute zentral nuklearretako indarra. AEBetako Gobernuak indar nuklearra armak egiteko erabil dezaketela salatu zuen arren, Golan Reza-Azade Irango Energia Atomikorako Agentziako buruak adierazi zuenez, nazioarteko arauak errespetatzen ditu Gobernuak. Bere esanetan, nazioarteko ikusatzailak ateak irekitzeko prest daude.

MAROKO

Marokok Espainian duen enbaxadoreak adin txikikoak diren etorkinak etxera itzultzeko eskatu du

Abdeslam Baraka Marokok Espainian duen enbaxadako buruak adin txikikoak diren eta gurasorik gabe bidaiatzen duten etorkinak berriz ere etxera bidaltzeko eskatu zion atzo Madrili. Kamal Rahmouni Marokoko Etorkin Langileen Elkarteko zuzendariordeak adin txikioen afera konpondu ahal izateko bi gobernuak elkarrekin lan egin beharko dutela esan zuen, enbaxadoreari erantzunez. «Hori egin ezean, berriz ere Espainiara ihes egingo dute gazteek», nabarmendu zuen Rahmounik.

ZIMBAWE

Harareren kontrako zigorra ez luzatzea erabakiko du Commonwealthek

Zimbabwe Commonwealth erakundetik kanporatu zuen zigorra luzatzea nahi ez dutela eman dute aditzera Hegoafrikak eta Nigeriak. Eskubide politikoak zein giza eskubideak bortxatzea leporatuta, Harare Inperio Britainiarreko partaide izandako hainbat herrialdek osaturiko erakundetik urtebete at izatera zigortu zuten iaz. Zimbabweko egoera aztertu duen taldeko kideak dira Hegoafrika eta Nigeria, Australiarekin batera.

INDIA

Erruduntzat jo du bere burua 1985ean hegazkin indiar baten kontrako atentatuaz akusaturiko sikh batek

Air Indiako hegazkin bat 1985ean suntsitu zuen bonba jarri izana onartu zuen atzo Kanadako epaitegi batean Inderjit Singh Reyat sikhak. Bidaiari guztiak —329 pertsona— hil ziren leherketan, gehienak kanadiarrak. Indiako tropek 1984an sikhen Urrezko Tenpluari egin erasoaren mendekua izan zen atentatua.